

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea

DATA: 2018/11/28

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Bizilagun batek eskatu du herritarren proposamen eta iradokizunak lehenago argitara daitezela web-orrian.	Proposamenak argitaratzen dira dagokion sailak erantzunak bidali ahala. Joan den urtera arte, lehen erantzunak ekainean argitaratu izan dira.
Zerbitzuak	Untzagako bizilagun batek zera eskatu du: ezin bada txip-sistema bat ezarri lur azpiko edukiontzientzat, lur gainekoak jar ditzatela.	Edukiontzi motak aldatzea konplexua da, bide batzuetan ezingo liratekeelako edukiontzi-multzoak jarri. Halaber, jartzen ari dira edukiontziak txip eta pedalarekin.
Udaltzaingoa	Salatu du Untzagako 2 eta 3 zenbakietako arkupeak beti jendez beteta egoteak eragotzi egiten duela bizilagunak sartzea, eta askotan errepidera irten behar izaten dutela beren pegoretara sartzeko.	Jende-pilaketak batez ere asteburuetan izaten dira, baina ez dago egiaztatuta pegoretara sartzeko bizilagunek errepidera irten behar dutenik.
Udaltzaingoa	Kexu da tabernetako ateak jaiegun eta asteburuetan irekita egoten direlako gau osoan, eta zarata eta musika kanpora ateratzen dela. Eskatu du esku-hartzea.	Antzemanek gero ostalaritzako establezimendu bat ateak zabalik dagoela edo zarata kanpora ateratzen dela, edo kexaren bat jasoz gero, arduradunari ateak ixteko agintzen zaio. Birritan antzemanek gero, akta egiten da eta zehapen-espiediente bat irekitzen da.
Hirigintza Udaltzaingoa	/ Salatu du tabernen eta terrazen ordutegiaren luzapena. Eskatu du ordutegia errespetatzea.	Ostalaritza-establezimendu batek baimendutako ordutegia gainditzen badu, akta egiten da, non jasotzen den zenbat bezero dauden barruan, edaririk zerbitzatu duten, musikarik dagoen, etab. Ondoren, zehapen-espiedientea zabaltzen da.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du garbiketa-sistema hainbeste eragozpen eragiten ez duen beste batez ordeztzea, edo, gutxienez, garbiketa-ordutegia geroago hastea.	Mankomunitateak haize-makina elektrikoak erosi ditu, eta eskuz eskobatzeko makina elektriko bat jarri du martxan, udalerrian egiten duen garbiketa hobetzeko eta zarata gutxitzeko.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea

DATA: 2018/11/28

Saila

Laburpena

Alkatetza	Eskatu du Euskotrenekin soluzio bat topatzea trenak Ardantza inguruan ateratzen duten zarata jasanezina arintzeko.	Eskatzen jarraitzen dugu Euskal Trenbide Sareari, gai honetan erantzukizuna duena, soluzioak har ditzala trenak sortzen duen soinua gutxitzeko. Hala ere, Udalatik azterketa ekonomikoak egiten ari gara, eta baita hauek izan dezaketen enkajea bai aurrekontuetan bai lege arloan, gure baliabideekin irtenbideren bat eskeini dezakegun ikusteko.
Hirigintza.	Galdetu du ea posible den igogailu bat jartzea Toribio Etxebarria 12 zenbakiko pegoran, lokala desjabetuz igogailua zero kotara jaisteko.	Udalaren web-orrian dago eskura bizitegi-eraikinen irisgarritasuna hobetzeko lokalak desjabetzea ahalbidetzen duen Ordenantza. Hirigintza sailean informazio gehiago eska dezake.
Zerbitzuak	Eskatu du Toribio Etxebarria 12 zenbakiko eraikinaren beheko lokalak garbitzeko. Galdetu du ea nori dagokion eginkizun hori.	Fatxadak pribatuak dira, hortaz, garbiketa eta mantentzea jabetzari dagozkio. Datozen egunetan (urrian), pintadak garbitzeko beste programa berri bat jarriko da abian, eta interesa duten komunitateek pintadak garbitzea eskatu ahal izango dute, beharrezko dokumentazioa aurkeztu ondoren.
Zerbitzuak	Jakinarazi du ur-filtrazio arazo bat daukatela J.A. Gisasola kaleko garajeetan, goian dagoen parkean zikinkeria handia pilatzen delako eta saretek ez dutelako ura behar bezala husten. Adierazi du parkerako sarbidea ere ez dagoela egoera onean eta horrek ere ura sartzea eragiten duela.	Abisua eman zitzaion Mankomunitateari, euri-uren saretek sarriago garbitzeko

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea

DATA: 2018/11/28

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du altzairu herdoilgaitzezko barandak jartzea eraikin publikoen sarbide guztietan, eta egoera txarrean daudenak ordeztzen joatea.	Barandak aldatu egiten dira mantentze-premien arabera, dagoena kendu eta, ahal denean, altzairu herdoilgaitzezko beste batez ordeztuz.
Udaltzaingoa	Iradoki du erdiguneko oinezkoen gunea egunero jar dadila (ez bakarrik asteburuetan) edo gera dadila betiko oinezkoek erabiltzeko.	Oinezko egitea egunero oso zaila litzateke, kontuan hartuta ibilgailu-zirkulazioa, zamalanak, denden eta tabernen banatzaileak, eta autobus-zerbitzuak.
Obrak	Bidebarrietako bizilagun batek eskatu du 6 zenbakiko oinezkoen pasabide berria goratua izatea.	Leku laua da, ez du beheragunerik edo belarririk, eta ez da beharrezko ikusten goratzea.
Zerbitzuak	Eskatu du Bidebarrietaren eta Julian Etxeberriaren arteko espaloiko bihurgunearan dagoen lorategia kentzea. Dioenez, zaborra batzeko baino ez du balio.	Oraingoz, ez da lorategi hori kenduko. Hala ere, mantentze-lana modu programatuan egiten da herriko gainerako lorategiekin batera.
Zerbitzuak	San Andres eskolako hesiak konpontzeko eskatu dute.	Konpondu dira dagoeneko.
Zerbitzuak	Kexu da jartzen diren banku berriak gero eta txikiagoak eta deserosoagoak direlako.	Hiri-altzari enpresa gehienek komertzializatzen dituzten bankuen tamaina estandarra 1,80 metro eta 3,00 m-koa da. Orain arte Untzagako plazan jarritako bankuak 2,00 metrokoak ziren eta tamaina estandarraren aldaketa hori dela eta, kostua hirukoiztu egiten da.
Zerbitzuak	Jakinarazi du, Untzagako jubilatuen etxetik irtetean, kutxatila bat lurzoruaren maila baino beheraxeago dagoela.	Konpondu egin zen.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea

DATA: 2018/11/28

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Eskatu dute Untzagako markesinaren ondoko banku baten azpian falta den euri-uren sareta bat konpontzea.	Joan den urtarrilean jarri zen sareta berriz ere.
Zerbitzuak	Udaletxe aldean, Untzagan, adokin batzuk solte eta hondatuta daudela salatu dute.	Untzaga plazako baldosa apurtuak konpondu ziren, Udalaren aldean, bai eta zuhaitz-txorko bat estaltzen duten bi baldosa erdi ere, taxi-geltokiaren aldeko semaforo ondoan.
Zerbitzuak	Markesina jartzeko kendu zen bankua berriz ere jartzea eskatu dute.	Jarri zen.
Zerbitzuak	Kexu da Untzaga plazako markesina ondoko paperontzia ez dela husten.	Mankomunitateari eskatu zitzaion ohiko garbiketa-programan sartzeko.
Zerbitzuak	Egogainen kokatutako banku publikoak konpontzea eskatu dute.	Ikuskapena egin ondoren, iritzi zen ez dela beharrezkoa banku horiek aldatzea. Bakarrik egiaztatu zen egurra pixka bat higitua dagoela eguzkiagatik, baina bere funtzioa ez dago baldintzatuta.
Zerbitzuak	Eskatu dute Udaletxe ondoan dagoen baldosa bat konpontzea, arbola kendu zen tokian.	Lan hori 2018ko abenduan egin zen.
Zerbitzuak	Eskatu dute eraisteko Bidebarrietako arbola altuak eta txikiago batzuk landatzeko.	Arbolen tamaina ez da nahikoa botatzeko. Inausketa selektiboa bakarrik egiten da, baldin eta adarren tamainak oinezkoen igarobidea eragozten badu edo inguruko eraikinen fatxadei eragiten badie.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea

DATA: 2018/11/28

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Errebal 9ko garaje baten jabeak dio ur-filtrazioak dituztela eta Muzategiko parketik datozela; gainera, salatu du parke horretako kutxatila ez direla garbitzen, ezta Errebaletik parke horretara doazen eskailerak ere. Eskatu dute udal teknikari batek egoera baloratzea konponbide bat emateko.	Ez dago filtrazio horien erreklamazio formalik, eta, beraz, ezin da bisita teknikorik egin.
Udaltzaingoa	Bidebarrietako bizilagun bat kexu da umeek Zuloagatarreneko jardiñak zapaltzen dituztela eta inguruetako kartoia hartu eta han lagatzen dituztela.	Horrelako portaerak ikusten diren guztietan, kargu hartzen zaie haurrei eta haien gurasoei, baldin eta inguruan badaude.
Udaltzaingoa	Salatu dute txakurrak solte ibiltzen direla Zuloagatarreneko jardiñetan.	Antzematen denean txakurrak solte dabiltzala, animalien Ordenantza urratuz, lotzeko agintzen zaie jabeei eta, egoeraren arabera, salaketa jar daiteke.
Udaltzaingoa	Salatu dute pertsona batzuek edukiontzietatik ateratzen dutela arropa eta nahi ez dutena haietatik kanpo lagatzen dutela.	Halako portaerak ikusten direnean, kargu hartzen zaie, eta, egoeraren arabera, salaketa jarri.
Zerbitzuak	Untzagako bizilagun bat kexu da karpek, tabernek eta plazan egiten diren ekitaldiek sortzen duten zaratagatik.	Gobernu Batzarraren akordioetan zehazten da zer ordutegitan eta zer dezibeliotan jar daitekeen musika horrelako ekitaldietan, eta Udaltzaingoa arau horiek kontrolatzen ditu. Udalak antolatutako ekitaldietan, hura da bermatzen duena arauen mugak ez gainditzea.
Zerbitzuak	Eskatu dute eskobatzeko makinak, haizea botatzekoekin egin den bezala, elektrikoak izan daitezela, zarata gutxiago ateratzeko.	Mankomunitateak berriki eskuz eskobatzeko makina elektriko bat jarri du martxan, udalerrian egiten duen garbiketa hobetzeko eta zarata gutxitzeko.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea

DATA: 2018/11/28

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Galdetu dute ea zer kostu duten Untzagan jartzen diren karpek eta zeinek ordaintzen dituen.	Urteko kostua 33.000 eurokoa da, BEZa barne, eta Udalak ordaintzen du, betiere Udalak antolatutako jarduerak badira edo, bestela, herritarrentzat bereziki erakargarritzat jotzen badira.
Udaltzaingoa	Salatu du tabernek ez dutela terraza garbitzen.	Bide publikoa mahai eta aulkiekin, salmenta-produktuekin edo beste elementu osagarri batzuekin erabiltzeari eta okupatzeari buruzko udal Ordenantzaren 11.2 artikuluan jasotzen den bezala, "Jardueraren titularrek terrazaren eremua garbitu beharko dute gutxienez egunean bi aldiz, eta, betiere, funtzionamenduko ordutegia amaitzean instalazioa kendu ondoren".
Udaltzaingoa	San Juan kaleko bizilagun bat kexu da tabernetan eta kalean bertan edozein astegunetan dagoen zaratagatik.	Zaraten edo ordutegien araudia urratzen den bakoitzean, aktak egiten dira. Era berean, bizilgunen baten kexa puntual bat jasotzen den bakoitzean, egiaztatu egiten da eta kargu hartzen zaie establezimenduaren arduradunei edo, egoeraren arabera, salatu.
Obrak	Galdetu dute ea Errebaleko obrak egin ondoren nola geratuko diren hondakinen edukiontziak eta ea aldatuko den markesinaren kokapena.	Markesina plaza bota aurretik zegoen lekuan jarriko da, Errebal 16 zenbakiaren parean. Edukiontziei dagokienez, egun dauden lurpekoak mantenduko dira, eta gune bat sortuko da merkatuko postuen titularrek erabiltzeko.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea

DATA: 2018/11/28

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Kexu dira 2018an ez zirelako abesbatzak ekarri Eibarrera.	Erabaki zen ez ekartzea, abesbatzen kalitatea jaitsi egin zelako eta haien aurrekontua igo egin. 2019an ere ez dira ekarri arrazoi beragatik.
Alkatetza	Salatu dute umeen liburutegira joateko aurretik helduen aretotik pasatu behar direla umeak eta zarata ateratzen dutela. Galdetu dute ea sarbideak alda daitezkeen.	Egun badago beste sarbide bat haur-liburutegira; beraz, ez da beharrezkotzat jotzen sarbide alternatibo bat sortzea. Dena den, egia da igogailua duen sarbide bakarra nagusien liburutegitik pasatzen dena dela.
Alkatetza	Bizilagun batek salatu du Portaleko areto nagusian egiten diren kontzertuetako bolumen altua eta eskatu du aforoa kontrolatzea han antolatzen diren ekitaldietan.	Portalean egiten diren musika-ekitaldien dezibelioek beti betetzen dute Ikuskizunen Legeak ezarritako araudia. Aforoa ere beti kontrolatzen da.
Alkatetza	Eskatzen dute izuaren kontrako barrak jartzea Portaleko areto nagusirako sarbideko ateetan.	Udal teknikariek ez dute beharrezkotzat jotzen horiek jartzea.
Alkatetza	Galdetu dute ea Portaleko areto nagusiak baduen sarbiderik mugikortasun mugatuko pertsonentzat.	Aretoak alboko ate bat du, mugikortasun urriko pertsonak edo gurpildun aulkiak erabiltzen dituztenak eta haurrak sar daitezzen.
Udaltzaingoa	Ostalari bat kexu da Udaltzaingoa erabiltzen dituen moduengatik musika altu duela-eta jakinaraztera doazenean.	Ez dago egiaztatuta arazorik egon denik arrazoi horrengatik.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea

DATA: 2018/11/28

Saila

Laburpena

Hirigintza.

Salatu dute Egogaineko etxe berrietako garajeen sarbideetan ezinezkoa dela ibilgailu handiek kalterik gabe igarotzea . Salatu du barruko zirkulazioa ere txarra dela. Galdetu du ea nola eman zitzaion lizentzia eraikuntza-entresari.

Udalaren web-orrian dago eskura bizitegi-eraikinen irisgarritasuna hobetzeko lokalak desjabetzea ahalbidetzen duen Ordenantza. Hirigintza sailean informazio gehiago eska dezake.